

Bi Mariak

Joxean Agirre

Manuel Rivasek aspaldiko zutabe batean kontatzen zuen galiziar bat turismoa egitera doanean bi eskuak poltsikoan sartu eta Txinako Harresiaren aurrean, esate baterako, «ez zegok gaizki, baina ondo egindako harresia, Lugokoa», esan dezakeela, edo, Eiffel dorrearen aurrean, «ederki josita dagoela ematen dik, baina dorrea, benetakoa, Herkulesena, Coruñan».

Rivasen zutabe bilduma bat aldean, Galizian barrena ibili naiz berriki eta obratan dagoen Santiagoko katedralari begira, nik ere «botafumeirorik ez duelako, bestela Gasteizkoa bada hau adina», esaten nuen nirekiko, edo, Cambadosen, albariñoaren mekan, mahastiei begira jarri eta «Geta-riakoak, zainduagoak». Galego turistak Co-

pacabanaren aurrean «Vigoko Samil, polita- goa», esaten omen zuen, eta, nik, Arou- sako estuarioan daudenak ikusita, «gure herrikoa, garbiagoa», pentsatzen nuen.

Rivasen zutabe bildumarekin Galiziako “Gida Urdina” neraman eta harri- garria egiten zitzaidan lekuan lekuko historia kontatzeko zeinen zorrotzak diren neoliti- koa, erromatarrak edo Erdi Aroko egoera politikoa esplikatze- ko orduan eta zeinen motzak XX. mendearekin. Behin aipatzen zuen gidak Franco eta “anterior jefe de es- tado” deitzen zion. Santiagoko Alameda parkean paseoan doazen bi emakumeren eskultura pop batekin egin genuen topo. Googlen begira hasi eta enteratu ginen “Bi Mariak” anarkista familia bateko ahizpak zirela eta torturen ondorioz galdu zutela

burua, auzokoen laguntzari esker bizi zire- la eta biak elkarrekin paseatzera zihoaze- nean modu nabarmenegian makillatuta joan ohi zirela hiriko ikasle unibertsitario- ekin flirteatzeko asmoarekin. Dokumental bat ere bada haien omenez.

Hauek galtzaileen bandokoak ziren, bai- na antzeko zer bait gertatu zitzaigun iaz Boloniatik gertu, Reggio Emilian, Sette Fra- telli edo Cervi anaien historiarekin. Faxis- tak bila joan zitzaizkienean nazionalitate ezberdinetako partiso- noak aurkitu zituz- ten beren etxaldean. Seiak fusilatu zituz- ten gau berean. Euren bandoak irabazi zuen. Gaur museo bat dago baserri horre- tan eta film bat egin zen euren omenez. Gidetan, hala ere, hitz erdiren bat baizik ez, Erdi Aroaz orrialdeak dituzten bitartean. •

Beldurraren kultura

Nekane Zinkunegi
Barandiaran

Bihar arratsaldean Hondarribira joango naiz. Bigarren aldiz, Jaiz- kibel konpainia parekideari me- rezi duen harrera ofiziala egite- ko ordezkaritza parte hartuko dut. Iaz joan nintzen lehenengoz alarde egune- ra, eta izututa geratu nintzen ikusi nue- narekin. Oso basatia iruditzen zitzaidan alarde parekidearen aurkako “betikoen” jarrera.

Iazko basakeriaren dimentsioa aintzat hartuta, zur eta lur geratu naiz, biharko egunaren bezperetan, zenbaiten ahotik

entzun eta beste zenbaiten eskuz idatzi- ta ikusi ditudanekin. Zalaparta horre- tan, bada talde bat bere burua “Hondarribiko emakumeak” izendatzen duena. Hark publiko egindako ohar- rak asaldatu nau, bereziki, eta erantzuteko baliatu nahi nituzke lerrook.

Uste dut beste batzuk zaretela hipo- kritak, eta zuek bezala pentsatzen ez du- tenen seme-alabei sartu nahi diezuela hezurretaraino beldurraren kultura. As- katasunari uko egiten ez diotenak, plas- tiko beltzen, irainen eta txistu hotsen

artean, Kale Nagusian desfilatze- ko prest dauden Jaizkibel konpainiakoak dira. Pentsatzen eta hausnartzen aspaldi ika- si zutenak.

Zorionez, ez zituzten beldurrean hezi. Ikasi zuten zapalkuntzari, mehatxuei eta zuen –bai, zuenari– indarkeriari au- rre egiten. Askeak eta independenteak izateko urratsa egin dute Jaizkibelera batuta, badira beren pentsamendu- en eta ekintzen jabe. Eta are garrantzitsu- a dena: ez dira borroka horretan ba- karrik egongo. •